



## LEHEN HEZKUNTZAKO ORDUTEGIA

Orduan astean	Gutxieneko orduak				Erreferentziazko ordutegia, mailaz maila			
	Zikloetan			Guztira				
	1°	2°	3°		1°-2°	3°-4°	5°	6°
Ingurune naturalaren, sozialaren eta kulturalaren ezagutza	5	5	4	14	3	3	3	3
Arte-hezkuntza	3	3	3	9	2	1,5	1,5	1,5
Gorputz-hezkuntza	3	3	3	9	2	1,5	1,5	1,5
Gaztelania eta literatura *	8	7	7	22	4	4	4	3,5
Euskal hizkuntza eta literatura *	8	7	7	22	4	4	4	3,5
Atzerri-hizkuntza *	3	4	4	11	2	3	2,5	2,5
Matematika	5	6	5	16	3	3	3,5	3,5
Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza	---	---	1	1	---	---	---	1
Erljioa	3	3	3	9	1,5	1,5	1,5	1,5
Tutoretza	2	2	2	6	1	1	1	1
Jolas-ordua	---	---	---	---	2,5	2,5	2,5	2,5
Ikastetxeak askatasunez erabakitzeko:	10	10	10	30	---	---	---	---
	50	50	50	150	25	25	25	25

Hezkuntza-etapa arloetan banatzeak eta ordutegia arlo horietara moldatzeak arlo horiek lantzeko behar den denbora mugatzea dakar, eta ez du alde batera utzi nahi hezkuntza-etaparen izaera orokorra eta integratzailea.

Lehen zikloko ordutegia egokitzeko aukera izango dute ikastetxeek; betiere, hezkuntza-etapako ordutegia errespetatzen bada eta jakintza-arlo bakoitzako helburuak betetzen badira.

\* Hizkuntza bati baino gehiagori komunak zaizkien edukiak batera irakatsi daitezke; esaterako, hizkuntza-egiturak. Eduki komunen azalpeneko hizkuntza euskara ez bada, bermatu egingo da ikasleak euskal hizkuntza eta literaturako irakaspenak edo euskaraz emandako irakaspenak jasotzen dituela, gutxieneko ordu-kopuru batez. Ordu-kopuru hori, ziklo bakoitzean, ez da izango area bakoitzarentzat aurreko taulan adierazitakoa baino txikiagoa. Eduki komunen azalpeneko hizkuntza gaztelania ez bada, bermatu egingo da ikasleak gaztelania eta literaturako irakaspenak edo gaztelaniaz emandako irakaspenak jasotzen dituela, gutxieneko ordu-kopuru batez. Ordu-kopuru hori, ziklo bakoitzean, ez da izango area bakoitzarentzat aurreko taulan adierazitakoa baino txikiagoa. Eduki komunen azalpeneko hizkuntza atzerri-hizkuntza ez bada, bermatu egingo da ikasleak atzerri-hizkuntzako irakaspenak edo atzerri-hizkuntzan emandako irakaspenak jasotzen dituela, gutxieneko ordu-kopuru batez. Ordu-kopuru hori, ziklo bakoitzean, ez da izango area bakoitzarentzat aurreko taulan adierazitakoa baino txikiagoa.